

BERA HERRI IZENAZ TXOSTEN OSAGARRIA

Iruñea, 2008ko maiatza

*Andres Iñigo,
Onomastika batzordeburua
eta Nafarroako ordezkaria*

Bera herri izena dela eta, bertako Euskara Batzordeak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen bitartez, Euskaltzaindiaren iritzia jakin nahian, Nafarroako ordezkariari *Bera* herri izenari buruzko txostena eskatu zion. Txosten hura aipatutako Mankomunitatera eta Berako Udalera igortzeaz gain, Euskaltzaindiak, 2006ko Nafarroa Oinez zela eta, Berako Kultura Etxean egindako Ageriko Ekitaldian aurkeztu zuen ordezkari honek eta *Euskera* aldizkarian (1) «*Bera / Vera de Bidasoa herri izenaz*» izenburupean argitara eman.

Berako Udalak 2008ko urtarrilaren 17an herriaren izen ofiziala *Bera / Vera de Bidasoa* ordez *Bera* izatea onartu zuen. Ondotik, aldaketaren eskaera Nafarroako Gobernuari aurkeztu eta honek 2008ko otsailaren 18an hartutako erabakiaren bitartez ukatu egin zion. Hala ere, Udalak aurrera egitea erabaki zuen, eta bertako alkateak 2008ko apirilaren 14an Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariari, 2006an egindakoaren txosten osagarria eskatu zion. Hona egindako txosten osagarriaren edukia:

1. Udalerri horri dagokion *Bera* toponimoa euskalduna eta bakarra da, bere lehendabiziko lekukotasun historikoa ezagutzen denetik (1366). Hasierako kontsonanteari dagokionez, kontuan izan behar da, agirietan mendez mende *Bera* edota *Vera* era berean eta inolako irizpiderik gabe idatzi izan direla. Aipatzekoa da kontu hori batere garrantzirik gabekoa dela idazki zaharretan. Irizpiderik eza horren lekuko dira 2006an egindako txostenaren «Agiriak» atalean ematen diren izenaren lekukotzak (2).
2. Euskaltzaindia 1918an sortu zen eta hartu zuen lehendabiziko erabakien artean euskararen alfabetoarena izan zen (3). Alfabeto horretan *B* grafema ageri da, ez ordea *V* (gaztelaniaz *uve* deitzen zaiona). Demo-

(1) Ikus *Euskera* 51, 731-735 or.

(2) Ikus *Euskera* 51, 731-732 or.

(3) Ikus *Euskera*, 1920, 64. or.

krazia berrezarri zenetik, Euskaltzaindia euskararen Errege Akademia aitortu zen eta, hortaz, euskara gaietarako erakunde ofiziala Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia probintzietarako (4). Ondoren, ofizialtasun hori espresuki aitortu zitzaion Nafarroako Foru Erkidegorako, bertako legegintzaren bitartez (5).

3. Euskaltzaindiak, orain arte hartu dituen erabaki guztietan, udalerrri horri dagokion izena *Bera* dela erran du eta herritarrarena *beratar*. Izan ere, hala onartu zuen lehendabiziko aldiz erabaki zuenean, 1979.urtean (6). Ondotik, 1989an –Nafarroako Gobernuak 18/1986 Foru Legearen 3.artikulua betetzearren, hala eskatuta–, Euskaltzaindiak erabaki hura berretsi zuen (7). Azkenik, 2007an, Euskaltzaindiak Nafarroako udalerrien izendapenei arau izaera emateko egindako berrazterketaren ondotik, berriro ere izendapen hori berretsi zuen (8).
4. Azken berrespen hau erabaki aitzinetik, Onomastika Batzordeak 2006an onartutako irizpenean emandako lekukoez gain, izendapen bakarraren alde mintzo diren bertze zenbait testigantza ere kontuan izan zituen, bertzeak bertze, Julio Altadill eta Joaquin Goya jaunena.
 - a) Julio Altadill izan zen Francisco Carreras Candik 1911 eta 1925 bitartean argitara eman zuen *Geografía General del País Vasco-Navarro* lanaren Nafarroari buruzko bi aleen egilea. Gaztelaniaz idatzitako lan horretan *Vera* soilik aipatzen du beti (9).
 - b) Joaquin Goya apez beratarra izan zen 1980an argitaratutako *Posestas de tres verataras en euskera / Iru beratarren euskal bertsoak* liburuaren egilea. XIX. eta XX. mendeetako Berako hiru euskal idazle horiek Ignacio Larramendi (1874-1960), P. Román de Vera *Dornaku* (1878-1959) eta Joaquin Aldave (1893-1973) dira. Hirurak beti *Bera* soilik erabiltzen dute. Hona liburuan ageri diren zenbait aipu: «Zèñen pollita den BERA!..., BERA'ko goxotasuna» (11.or.); «Erri pollita franko ludiyan badago, BERA bezain pollitik iñontxo ez dago» (21.or.); «Esteban Deuna BERA'k du zaindari..., baduzu BERA ibai bat garbia, edergarritzat Jaungoikoak jarria» (65.or.); «Zenbat auzotan dago banatuta BERA erriya. Denak elkartuta bat egite'ute; erri bat bakarra besarkatuta» (66.or.); «O

(4) Ikus otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuaren 1. artikulua.

(5) Ikus abenduaren 15eko 18/1986 Foru legea, Euskarari buruzkoa, 3.3.artikulua.

(6) Ikus *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Euskaltzaindia, 1979, 95.or.

(7) Ikus *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra*, Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak elkarrekin argitaratua, 1990, 265.or.

(8) Euskaltzaindiak 2007ko otsailaren 23an osoko bilkuran hartutako erabakia.

(9) Ikus Bartzelonako Establecimiento Editorial de Alberto Martín izenekoan ateratako lehendabiziko argitalpenari dagokion *Provincia de Navarra*-ren bigarren alearen 296.or.

BERA erri beti paketsua, nolkuia ziñan ez dut nik aztua» (67.or.);
«O Bera nire erriya, zaitut biyotzian» (69.or.).

5. 2006ko txostenean azaldu bezala, mendez mende era berean eta inolako irizpiderik gabe, *B* eta *V* kontsonantez idatzi den toponimo bakar horri, orain dela mende bat baino gutxiago, 1916. urtean hain zuzen, gehitu zitzaion kalifikatzaile bat. Izan ere, 1916ko ekainaren 27ko Errege Dekretuak (10) Espainiako Erresuman izen bera zuten herri izenei kalifikatzaile bat gehitzea erabaki zuen. Zer dela eta? Dekretuaren azalpenetan esplikatzten den bezala, izenen erabilera Administrazio mailan erraztearren. Hona Dekretuaren sarreran datorrena: «*hásese atendido a bases o reglas generales que imprimiesen a la obra unidad de criterio, limitándola en lo posible y procurando que afectara al menos número de localidades, dejando intacto el nombre actual a las poblaciones de mayor categoría administrativa, como las capitales de provincia, cabezas de partido judicial y las de mayor número de habitantes, y variando los de aquellas entidades de población cuyo número de vecinos es menor que el de sus homónimas, procurando que el calificativo que se asigna no sea arbitrario, sino el que la tradición, el uso o los afectos de cada localidad vienen consagrando, y teniendo también presentes los antecedentes históricos, circunstancias especiales de terreno, etc., y con especial predilección las palabras que expresan nombre de corriente de agua, de la montaña, del territorio, de la particularidad geográfica, en fin, en cuyas cercanías o dentro del cual se halle enclavado el Ayuntamiento o población cuyo nombre propone modificar*». Dekretu horren eraginez, *Vera* izen soila Almeriako probintzian dagoen udalerrarentzat gorde zen, auzitegi barrutiburu zelako, eta gainerakoei kalifikatzaile bat gehitu zitzaion, hala nola, *de Bidasoa* (hidronimoa) Nafarroako probintziakoari eta *de Moncayo* (oronimoa) Zaragozakoan dagoenari.
6. Euskaltzaindiak 1979an Nafarroako euskal toponimo hau *Bera* idatzi behar zela erabaki zuenetik, ez dago izen hau bertze herri batenarekin nahasterik, ez baita Espainiako Erresuman grafia horretan idazten den izen bereko herririk. Gainera, izen bakarra denean erabat lekuz kanpo dago bi izendapen ematea; oraindik gehiago, Espainiako Erresuman hizkuntza ofizialkideak onartu zirenetik, Erkidego Autonomikoetan egin den bidea praktika horren alde mintzo da. Azken horren adibide-etako bat da, erraterako, demokrazia berrezarri eta Galiziako Estatutuaren eraginez, Lugo probintzian erabakitakoa. *Los Nogales* deitzen zen udalerria *As Nogais* izendatu zen, eta azken hau da egun izendapen bakarra, hain zuzen ere, *Los Nogales* ez delako *As Nogais*-en gaztelaniazko beste izen bat, *Vera* ez den bezalaxe *Bera* toponimo euskaldu-

(10) Ikus *Gaceta de Madrid*, 1916ko uztailaren 2ko 184. zenbakiaren 11-16.or.

naren gaztelaniazko bertze izen bat. Hor dugu, bada, izen bikoitzaren inolako beharrik izan ez duen adibide analogo bat.

7. Abenduaren 15eko 18/1986 Euskarari buruzko Foru Legeak 5.1. a) artikuluan *Bera* udalerria Nafarroako euskal eremuan kokatu zuen, eta 8.1. a) artikuluan honela dio: «Eskualde euskaldunean, izendapen ofiziala euskalduna izanen da, gaztelerazko beste izen bat izan ezik, kasu honetan biak erabiliko baitira». *Bera* euskal toponimoa da eta, hala delako, euskara hizkuntzaren arauen arabera grafia dagokio (*Bera*, ez *Vera*), eta dagokion moduan idatzita, ez du izen bikoitzik ez Nafarroako Foru Erkidegoan ez eta Espainiako Erresuma osoan. Hortaz, izen bakarra denez gero, ez dagokio aipatutako legearen 8.1.a) artikulua aplikazioa, artikulua horrek gazteleraz bertze izen bat duten udalerriei aplikatu behar zaiola baitio, *Auritz / Burguete, Luzaide / Valcarlos, Orreaga / Roncesvalles*, eta abarri. Beraz, lekuz kanpo dago bertze izen bat ezartzea, erran bezala, izen bakarra delako, toponimo euskalduna, Nafarroako euskal eremuan kokatua, dagokion hizkuntzaren arauen arabera grafian idatzia eta, horien guztien ondorioz, erabat desagertu delako 1916an kalifikatzailea gehitzeko erabakiaren oinarritzko arrazoia.
8. Gainera, 1916ko Errege Dekretuaren bitartez gehitutako kalifikatzaileen ezabaketak baditu aurrekariak Nafarroan, bi udalerritan gutxienez. Izan ere, aipatutako Dekretuaren eraginez *Sada de Sangüesa* eta *Urroz de Santesteban* izendatu ziren udalerrien egungo izen ofizialak *Sada* eta *Urrotz* dira (11) eta, jakina, *Urrotz*, *Bera* bezalaxe, Nafarroako euskal eremuan kokatua dago.
9. Azkenik, Nafarroako Gobernuak berak izen bakarraren alde jokatu du toponimia txikian. Foru Aginduen bitartez, onartu zuen Nafarroa osoko toponimia txiki ofiziala, eta zehazki ekainaren 21eko 193/1993 Foru Dekretuaren bitartez Berako toponimia txikiaren zerrenda, Nafarroako Aldizkari Ofizialean 1993urteko 82. zenbakian argitara emana. Zerrenda ofizial horretan *Beralandeta* («Berako landa» adierazten duen toponimoa) ageri da, *B* kontsonantearekin eta *de Bidasoa* kalifikatzailerik gabe. Grafia eta forma bakarrean idatzia dagoen toponimo hau ofiziala da ondorio eta aplikazio guztietarako (12).

(11) Ikus Nafarroako Gobernuak argitara emandako 2007-01-01eko *Nafarroako Izendegia*, 56. eta 58.orrialdeetan hurrenez hurren.

(12) Ikus Nafarroako Gobernuak 1997an argitara emandako Bortzirietako toponimia txiki ofizialean, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra*, II zenbakia, 78.or.

BIBLIOGRAFIA OSAGARRIA

18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa.

573/1976 Dekretua, otsailaren 25ekoa, zeinetan onartzea ematen zaion Euskararen Akademiari, Euskararen Erret Akademiaren izena ipintzen zaiolarik.

ALTADILL, J. *Provincia de Navarra* (2 ale), *Geografía General del País Vasco-Navarro*, Francisco Carreras Candi jaunaren zuzendaritzapean (1911-1925).

NAFARROAKO GOBERNUA (1991-1999), *Toponimia y Cartografía de Navarra / Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* (59. zenb.).

Real Decreto de 27 de junio de 1916, *Gaceta de Madrid* 184, de 2 de julio de 1916, 11-16.or.